

## **ERABAKIA, 2021eko ABENDUAREN 15koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko DOKTOREGO IKASLEENTZAKO ERASMUS + MUGIKORTASUNERAKO DEIALDIA ARGITARATZEKO**

Erasmus + 2021/27 programak unibertsitateko ikasleen mugikortasunerako eskubidea sustatzea du helburu, goi hezkuntzaren arlo guztietako ikasketa maila guztietan. Aurreko programetan ez bezala, non mugikortasun bat besterik ez egin baitzitekeen unibertsitate bizitza osoan; egungo programa honetan, ikasleek hainbat mugikortasun egin dezakete unibertsitate maila bakoitzean.

Egoera berri honen eraginez, areagotu behar izan da mugikortasunen eskaintza eta ikasketa maila ezberdinetan, sortutako aukera hauek guztiak ikusgarri izan daitezten.

Azaldutakoaren harira, kreditua egon badagoela kontuan izanda, eman dizkidaten eskumenak erabiliz, honako hau

### **ERABAKI DUT:**

Argitaratzea doktoregoko ikasleentzako nazioarteko mugikortasunerako plazak esleitzeko 2022/23 nazioarteko mugikortasunerako deialdia, UPV/EHUren nazioarteko mugikortasunerako arautegiari segika adjudikatuko dena, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen gobernu kontseiluak 2017ko irailaren 28an hartutako ERABAKIAN onartu baitziren, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen nazioarteko mugikortasunerako arautegia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1288/2013 (EB) ERREGELAMENDUA, 2013ko abenduaren 11koa, «Erasmus+» programa sortzen duena, Batasuneko hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolari buruzkoa, eta 1719/2006/EE, 1720/2006/EE eta 1298/2008/EE Erabakiak indargabetzen dituen, eta ondorengo arau espezifikoak. Hori guztia dela eta, honako OINARRI hauek xedatu ditut:

### **OINARRIAK**

<b>1.- HELBURUA .....</b>	<b>2</b>
<b>2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.....</b>	<b>2</b>
<b>3.- MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO MUGAK .....</b>	<b>2</b>
<b>4.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA .....</b>	<b>2-3</b>
<b>5.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK .....</b>	<b>4</b>
<b>6.- OKERREN ZUZENKETA ETA ERREKLAMAZIOAK .....</b>	<b>4</b>
<b>7.- EBAZPENA .....</b>	<b>5</b>
<b>8.- ERASMUS + LAGUNTZA EKONOMIKOA .....</b>	<b>5-6</b>
<b>9.- MUGIKORTASUNEN IKASLEEN BETEBEHARRAK .....</b>	<b>6-9</b>
<b>10.- ARAU HAUSTEAK .....</b>	<b>9</b>
<b>11.- DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA .....</b>	<b>10</b>

## 1.- HELBURUA

Deialdi honen helburua da Erasmus+ programan 2022/23 ikasturtean parte hartuko duten doktoregaiak hautatzea, UPV/EHUren Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetza gestionatuta.

## 2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- 2.1.- Doktoregaiak Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du edo bizi den herrialdean errefuxiatu, herrigabe, egoiliar iraunkor, egoitza-baimena indarrean duen aldi baterako egoiliar edo ikasketa egonaldiako baimena izan beharko du mugikortasunak iraun bitartean eta herrialdeko legeria beteaz.
- 2.2.- Doktorego programaren batean matrikulatuta egotea **mugikortasun eskaera egiten duenean eta mugikortasun aldiaren egon bitartean.**
- 2.3.- Helburuko Unibertsitatean jasoko dituen irakasgaietako dagokien hizkuntzaren **jakite maila nahikoa** izatea.

## 3.- MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO MUGAK

- 3.1.- **Ikasturteko mugikortasun bat besterik ezin da egin (egonaldi jarraitu bakarra).** Erasmus programaren kasuan ikasleak aukera izango du ikasturte berean ikasketa mugikortasun bat + praktika mugikortasun bat egiteko.
- 3.2.- Helburuko unibertsitatean egin litekeen gehieneko egonaldia akademi ikasturte bat izango da. Atzerriko doktoregaia aldi baterako bizilekuan egon edo ikasketengatiko egonaldia egiten ari denean, berak izango du bere baimenak berritzeko ardura UPV/EHU egiten duen ikasketa epe osoan zehar.
- 3.3.- Egonaldiaren iraupenak bat etorri beharko du doktoregoaren Batzorde Akademikoak ezarritakoarekin eta Konpromiso akademikoan (*Learning Agreement*) zehaztuta dagoenarekin.

## 4.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA

Eskaerak aurkezteko epea **2021eko abenduaren 20tik 2022ko urtarrilaren 09ra arte (biak barne).**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, Erasmus mugikortasun programan parte hartzeko interesa duten doktoregaiak **eskaera eta dokumentuak aurkeztu behar dira, ahal den guztietan, honako hauen bidez:**

- **UPV/EHUko erregistro elektronikoa**, "eskabidearen titulu" gisa 22/23 Doktoregoko Erasmus Deialdia jarriz, eta "jasotzailea" atalean Doktorego Eskola aukeratuz, nazioarteko harremanetako teknikariaren arretari:  
<https://egoitza.ehu.eus/web/guest/registro-electronico>

Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: a) Izenperen ziurtagiri digitala; b) UPV/EHUren txartela (Izenpe); c) NAN elektronikoa; edo, d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtairia (FNMT-CERES).

Era berean, beste toki hauetan ere aurkeztu ahal izango da eskaera:

- sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa
- Aurrez aurre, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, Doktorego Eskolaren nazioarteko mugikortasuneko koordinatzaileari zuzendua: [https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra\\_ordutegia](https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra_ordutegia)
- Erregistro gaitan laguntzeko sektore publikoko edozein erakunderen bulegoetan, aurrez aurre, funtzionario publiko gaituaren bidez, Doktorego Eskolaren nazioarteko mugikortasuneko koordinatzaileari.
- Posta bulegoetan. Honelakoetan, dokumentazioa gutun irekian aurkeztuko da, posta zerbitzuko pertsonalak eskariaren lehenengo orria datatuko badu. Dokumentazioa posta ziurtatuaren bidez bidaliko da, helbide honetara:

**Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea**  
**Doktorego Eskola** (A/A: Nazioarteko Harremanetako teknikaria)  
(Doktoregorako Erasmus + deialdia)  
Bibliotekako eraikina, 1. solairua  
Sarriena auzoa z/g.  
48940 Leioa-Bizkaia - (tlf: 946018354)

- Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurrez aurre aurkeztu diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkezteak UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

#### 4.1.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Eskaera inprimakia Nazioarteko Harremanetako webgunean eskegita dagoen "eskaera inprimakia" izeneko dokumentuaren bidez. Bertan, gehienez, 2 unibertsitate hauta daitezke, bere doktoregoak eskainitakoen artean. **Egonaldiko iraupena, gutxienez, 2 hilabetetako izango da. Egonaldi laburragoetarako eskariak ez dira kontutan hartuko..**
2. Indarrean dagoen N.A.N. edo A.I.Z.aren fotokopia. Ez du balio pasaporteak.
3. Doktoregai eskatzailearen banku datuak agertzen dituen aurrezki libretaren lehenengo orriaren fotokopia (bankuaren IBAN KODEA BARNE), laguntza ekonomikoa bertan sartu ahal izateko. Doktoregaiak libretaren titularra edo titularkidea izan behar du.
4. Hizkuntza ziurtagiri ofizialen kopiak, hizkuntza jakitea egiaztatzeko.
5. Doktoregoan parte hartzeko bidea ireki dion titulazioko espediente akademikoaren kopia.
6. Doktorego tesiaren zuzendariak sinatutako azalpen memoria (eskaera inprimakiaren barruan).
7. Doktoregoan matrikulatu izanaren gordekina.

#### 5.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

- 5.1.- Plaza hauetarako hautagaitzat joko dira nazioarteko mugikortasun eskaera egitean doktorego programa batean izena eman eta helburuko unibertsitateek eskatutako hizkuntza ziurtagiriaren jabe diren UPV/EHUko doktoregaiak.
- 5.2.- Hautaketarako oinarria merezimendu akademikoa izango da. Beraz, horretarako, kontuan hartuko da 2022/23 mugikortasun deialdian hautaketa egiten denean ikasle bakoitzak doktoregora sartzeko aurkeztu duen titulazioaren batez besteko nota. **Ondoko hauek ere hartuko dira kontuan: Eskariarekin batera aurkeztutako memoria eta jarduera egiteko erabiliko den hizkuntzaren jakite mailaren ziurtagiria.**
- 5.3.- Mugikortasun programa batean inoiz parte hartu ez duenak lehentasuna izango du nazioarteko bigarren egonaldia eskatzen dutenen aurrean titulazio berean edo beste batean.
- 5.4.- Plaza adjudikatuta izan eta berrori uko egin nahi dioten doktoregaiak mugikortasuna hasi baino lehen jakinarazi beharko diote Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzari eta plazari uko egiteko dagoen formularioa bete beharko dute. Ezin da ukorik eskatu mugikortasunerako esleitu den gauzatze epea iragan eta gero.

Egin litezkeen erreklamazioak ezertan ukitu gabe, jakinarazteko behar hau betetzen ez duen doktoregaiak ezin izango du parte hartu hurrengo ikasturteko nazioarteko mugikortasun programetan.

Mugikortasuna, behin hasita eta norberak hala nahi badu, bertan behera utziz gero, errektoreordetza eta DOKe ere jarri beharko da jakinaren gainean emailen bidez ([movilidad.internacional@ehu.eus](mailto:movilidad.internacional@ehu.eus) eta [international.doke@ehu.eus](mailto:international.doke@ehu.eus)), ikaslearen egoera eguneratuko bada. Jakinarazi gabe utziz gero eta laguntzak ordaindu badira, subentzio horiek berreskuratzeko erreklamazioa egingo da, legezko interesekin batera. Era berea, justifikatu gabeko arrazoiak bertan behera utziko duen ikasleak, ezinbesteko arrazoiak eragindako egoeratik ez balitz, ezin izango du nazioarteko mugikortasun programetan parte hartu hurrengo ikasturtean.

## 6.- OKERREN ZUZENKETA ETA ERREKLAMAZIOAK

Okerrak zuzendu eta erreklamazioak aurkezteko 10 lanegunen epea izango da, hala nola hizkuntza ziurtagiria eta beste (ikusitako egutegia). Epe hori igarota ez badira jaso eskatutako agiriak, ulertuko da interesatuak eskaera bertan behera uzten duela, aurkeztu ez den dokumentazioari dagokionean. Hau da, aurkeztu gabeko agiriak edota zuzendu gabeko okerrek ez badiete eragiten ikaslearen eskaera orokorrean agertzen diren beste unibertsitateei, baliozkotzat hartuko dira.

## 7.- EBAZPENA

Emandako plazen behin-behineko zerrenda, zuzendu beharrekoa, itxaron zerrendako doktoregaiena eta baztertutako eskaerena Nazioarteko Harremanetako webgunean argitaratuko dira **2022ko otsailaren 01ean**. Dokumentazioa zuzentzeko epea 10 lanegunena izango da. Epe hori iraganik, emandako plaza eta plazarik lortu ez duten ikasleek behin betiko zerrenda argitaratuko da.

Ikasleek **2022ko otsailaren 18tik 24ra** arteko epea izango dute esateko Nazioarteko Harremanetarako webgunean eskegita dagoen "emandako plaza onartu edo uko adierazteko inprimakia" izeneko dokumentuaren bidez hartzen duten ala ez emandako plaza. Epe barruan uko egin eta onartu ezean, ulertuko da emandako mugikortasunari omisioarengatik uko egin zaiola. Ondorioz, errektoreordetza honek gestionatutako mugikortasun programa guztietako eskari eta hautapen prozesuetatik at geratuko da ikasleak, bai deialdi berean nola hurrengoan.

Nolanahi ere, mugikortasuna gauzatzeko 2022/23 ikasturterako matrikula egin beharko da eta hiru alderdiek sinatutako konpromiso akademikoa.

Plazak adjudikatuko dituen erabakiak agortu egiten du administrazio bidea. Hala ere, ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal zaio Koordinazio eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeari, hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen arabera (123. art. eta hurrengoak); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratzen denetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen arabera (10.1a eta 46.1 artikulua).

## 8.- ERASMUS + LAGUNTZA EKONOMIKOA

Beka kontzeptu gisa sartu beharreko zenbatekoa izango da SEPIEK komunikatutako zenbatekoa eta mugikortasunerako ezarritako hilabete kopurua biderkatuz ateratako emaitza eta, gehienez, 7 hilabete arte (programaren finantzaketaren arloan unibertsitate maila akademiko bakoitzean izan daitekeen banakako kredituaren muga hamabi hiletakoa da, gehienekoa urtean zazpitakoa izanik).

**CERTIFICATE OF ATTENDANCE** delakoaren datak hartuko dira kontuan egonaldian benetan emandako hil eta egunak egiaztatzeko eta, kasuan kasu, Nazioarteko Harremanen bulegotik eska daiteke soberan jasotako diru laguntzen zenbatekoa itzultzeko.

Webgunean, SEPIEK herrialde talde bakoitzerako [ezarritako zenbateko ekonomikoen taula](#) dago, bakoitzaren maila ekonomikoaren arabera.

Aukera gutxiago dituzten ikasleentzako laguntza gehigarriei eta bidaia ekologikoei buruzko informazioa eskuratzeko, kontsulta ezazu Nazioarteko Harremanen webgunea: <https://www.ehu.es/eu/web/nazioarteko-harremanak/-/ayudas-economicas-movilidad-2022-2023-1>

## 9.- MUGIKORTASUNEN IKASLEEN BETEBEHARRAK

### 9.1.- Eskubideak eta betebeharrak

ERASMUS+ mugikortasun beka baten onuradunak "ERASMUS ikasle gutunean" ezarritako eskubideak eta betebeharrak ditu; ([https://www.ehu.es/documents/2099535/33649842/erasmus\\_student\\_charter-Oct21\\_en.pdf/331f4018-f4b6-a946-35b7-ea9a212913ca?t=1638894363375](https://www.ehu.es/documents/2099535/33649842/erasmus_student_charter-Oct21_en.pdf/331f4018-f4b6-a946-35b7-ea9a212913ca?t=1638894363375)) webgunean daude ikusgai, UPV/EHUren mugikortasunerako arauak, eta harrera unibertsitateko arauak bete beharko dituzte han dauden bitartean.

## 9.2.- Onarpena helburukoan

Mugikortasun plaza lortu izanak **EZ** du nahitaez esan nahi ikaslea harrera unibertsitatean behin betiko onartu dutenik. Doktoregaia ez badute onartzen esleitutako tokian, Nazioarteko Harremanen bulegoak (DOKe-ko koordinatzailearekin batera), arrazoiak aztertu, eta libre legokeen beste toki bat esleitu ahal izango diote UPV/EHUren arautegiarekin bat etorrita.

Ikaslearen erantzukizuna da harrera unibertsitatean sartzeko kudeaketak egitea. Ikasleak adi egon beharko du unibertsitate bakoitzak onarpen eskabideak aurkezteko (kasu batzuetan on line) ezartzen dituen epeei; izan ere, unibertsitate askok ez dute onartzen epez kanpo bidalitako eskaririk.

Era berean, ikaslearen erantzukizuna da unibertsitatean dagoen bitartean ostatua, mantenua eta gainerako eguneroko gastuak kudeatzea.

Gaitzeko hitzarmenean araututakoa araututa, hasiera batean, doktoregaiak ez du tasarik ordaindu beharko harrerako unibertsitatean, jatorrizko unibertsitatean ordaintzen baitu. Hala eta guztiz, atzerriko unibertsitateak diru kopuru txikiren bat eskatu ahal izango dio ikasleari aseguruaren, ikasleen sindikatuarentako afiliazioaren gastuei aurre egiteko, edota material ezberdinen erabileraren gastuetarako (fotokopiagailuak, laborategiko produktuak eta abar). Bertako doktoregaiari eskatzen zaien kopuru berbera izango da.

## 9.3.- Learning Agreement for Doctoral Studies

Helburuko unibertsitatean onarpen eskaeraren izapideak egiten diren bitartean, edo ondoren (helburuko unibertsitateak finkatutako prozeduren arabera), tesiko zuzendariarekin *Learning Agreement for Doctoral Studies* delakoa bete behar izango da. Bertan jasoko da zein diren helburuko unibertsitatean egingo diren jarduerak eta UPV/EHUko zeinekin baliozkotuko diren, eta kontratua loteslea izan dadin, bi unibertsitateen baimen sinadurak eta doktoregaiarena izan beharko ditu.

9.4.- Harrera-unibertsitatean **ikasketa errendimendu ona** egiaztatu beharko duzu.

## 9.5.- Helburukoan hastea

Finkatutako datan joan beharko da helburuko unibertsitatara, hala egingo ez balitz mugikortasuna bertan behera utzi dela ulertuko da. Berehala eman beharko zaio egoera horren berri Nazioarteko Hedakuntzako Errektoreordetzari. Izan ere, jakinarazi ezean, baztertuta geratuko da UPV/EHUk gerora egingo dituen mugikortasun programen deialdietako hautapen prozesuetatik. Mugikortasunaren egonaldi garaia edo lauhilekoa aldatuz gero, eta horrek eskaintako iraupena aldarazten badu, ezinbestekoa izango da Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren eta DOKe-ko koordinatzailearen oniritzia; betiere, eskaeraren arrazoiak aztertu ondoren. Oniritzirik gabe aurrera eginez gero, 9.10 atalean aurreikusitako egoeretan egongo da doktoregaia.

## 9.6.- Beharrezko dokumentazioa mugikortasuna gauzatu baino lehen eta mugikortasuna amaitu eta gero; OLS

### 9.6.1.- Mugikortasunaren aurretik

- **Diru laguntza hitzarmena:** Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak eskaintako diru laguntzaren hitzarmenaren kopia beteta eta sinatua entregatu beharko da.
- **Hizkuntza:** Erasmus+ mugikortasuneko ikasleak ebaluazio bat egin beharko du sarean OLS aplikazioaren bidez (ikaslearen hizkuntza gaitasunaren maila ezagutzeko test proba da). Hizkuntzaren ebaluazioa egin ezean, ezin izango da mugikortasuna gauzatu.
- **Hasiera zirutaqiria:** Ikasleak destinoko unibertsitatean hasi dela egiaztatu beharko du hasierako ziurtagiriaren bidez (Certificate of Arrival). Ziurtagiri hori unibertsitate horrek behar bezala bete, sinatu eta zigilatu beharko du.
- **Aseguru medikua:** Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartela eskuratu beharko da eta atzerriko unibertsitatera iritsi aurretik, bidaiarako aseguru bat egin beharko da, aurreikusitako egonaldi OSOAN gaixotasun eta istripuen arloan gerta litezkeen gorabeheren arreta medikua estaltzeko eta, bereziki, aberriratzeko, hilez gero, eta jatorrizko herrialdera itzultzeko osasun garraiorako estaldura mugagabea izango duena, gaixotasun edo istripu larrien kasuan. Aseguru horren ordainagiriaren kopia bat bidali beharko da Leioako Nazioarteko Harremanetarako Bulegora.

Aseguru horren ordainagiriaren kopia bat bidali beharko da **Leioako Doktorego Eskola (DOKe) Bulegora**.

#### COVID 19:

**IBILI aseguru:** 19-kobidaren estaldurak osasun-arreta (gaixotasuna hartu denean) eta aberriratzeari barne hartzen ditu, beharrezkoa izanez gero, hau da, medikuak aginduta.

**GARRANTZITSUA:** [estalduraren xehetasunak kontsultatu](#)

**Beste aseguru batzuk:** kontratatutako aseguruak Covid-19ren gaixotasun-estaldura barne hartzen duela egiaztatzea gomendatzen dugu.

- **Bisatuak:** Harrera herrialdera joan aurretik egin beharko dira hala eskatzen duten herrialdeetan egonaldia egiteko edo sartzeko beharrezkoak diren bisatuak eskuratzeko izapideak; eta joan aurretik egin beharko da, halaber, harrera unibertsitatean sartu ondoren herrialde horietan egoteko beharrezkoa den beste zeinahi administrazio izapide. Ez da Nazioarteko Harremanen bulegoaren erantzukizuna izango izapide hori egitea ahazteagatik doktoregaiak mugikortasunerako aukera galtzen badu.



### 9.6.2.- Mugikortasuna amaitzean

- ***Bukaera ziurtagiria:*** egonaldia amaitu eta hurrengo hilabetean, egiaztatu beharko du nahitaez egonaldia eta berorren iraupena egonaldi amaierako (*Certificate of Attendance*) egiaztagirirekin. Helburuko unibertsitateak behar bezala betete, sinatu eta zigilatu beharko du.
- ***Azken txostena:*** Bulego honek jasotako ***Certificate of Attendance*** delakoaren datak aplikazio informatikoan sartu ondoren, aplikazio horrek jakinarazpen automatikoak igorriko dizkie onuradunei **azken txostena** betetzeko.

Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, "ikasle" posta korporatiboko helbideari adi egoteko eskatu behar da, ikasturtea amaitu bitartean.

Mezu elektronikoa bat jasoko duzue **REPLIES-WILL-BE-DISCARDED@EC.EUROPA.EU** helbidetik (letra xehez) eta Spam karpetera irits daiteke. Bertan esteka bat ematen da online txostena baliatu ahal izateko eta jaso eta 30 egun naturalen epean itzultzeko.

De: replies-will-be-discarded@ec.europa.eu  
Asunto: Solicitud de informe individual del participante Erasmus+ / Erasmus+ individual participant report request /

Txostena bete ezean, programa beteko ez dela ulertuko da eta jasotako laguntza itzultzeko eskatu eta ERASMUS mugikortasunaren aitortpena gal daiteke.

### 9.7.- Egonaldiaren luzapenak

Egonaldiak luzatu ahal izateko, ikasleak helburuko unibertsitatean egonda eskatu ahal izango da. Adierazitako hilabeteak baino egonaldi luzeagoa egin nahi bada, Erasmuseko koordinatzaileen baimena beharko da (jatorrizkoarena eta helburuko unibertsitatekoarena). Egonaldia luzatuko da baldin eta ikasketa kontratuan (*Learning Agreement*) egin beharreko aldaketak egiten badira. Eta orduan ere, aseguru mediko gehigarriaren indarraldia luzatzen dela dioen agiriaren kopia aurkeztu beharko da. Egonaldi luzapen hori ez da izango, inola ere, automatikoa; eta ez du ekarriko, luzapeneko hilabetei dagokien finantza laguntza jasotzeko eskubidea, salbu eta horretarako aurrekontu zuzkidurarik balego.

## 10.- ARAU HAUSTEAK

10.1.- Betebehar hauek guztiak inolako azalpenik gabe bete ezean, hainbat ondorio etor litezke, kasuan kasu: beka ezeztatzea, ikasketa kontratua etetea, finantza hitzarmena ezeztatzea (eta ondorioz, aurretik jasotako finantza laguntza guztia itzultzeko derrigortasuna) eta errektoreordetatik gerora sustatutako zeinahi mugikortasun programatako hautapen prozesuetatik kanpo geratzea.

Era berean, kreditu, hizkuntza eta bestelako baldintzarik beteko ez balitz helburuko unibertsitateara iristerakoan, bertan behera geratuko da automatikoki programan.

10.2.- Zehazkiago, konprometitua baino egonaldi laburragoa eginez gero, subentzio kontratuak behartuko du jasotako laguntza proportzio horretan itzultzera, CERTIFICATE OF ATTENDANCEn agertutako egun efektiboen kalkulua ikusita.

10.3.- Bere aldetik, errendimendu akademikoaren arloko betebeharrak bete ezean, jasotako laguntza osoa itzuli beharko da.

## 11.- DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA

Betebeharretan huts egiten den kasuetan, hau izango da dirua itzultzeko prozedura:

- a) Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeak interesdunari jakinaraziko dio dirua itzultzeko prozedura ireki dela eta horren arrazoiak azalduko dizkio. Instrukture bat izendatuko du eta hamabost egunetako epea zabalduko du ikasleak alegazioak egiteko eta egoki deritzen frogak proposatzeko. Prozedura irekitzearekin batera eten egingo dira ordainketak.
- b) Alegazioak jasota edo horiek egiteko epea alegaziorik gabe igarota, aurrera jarraituko da prozedurarekin eta interesdunari onartu zaizkion frogak egingo dira. Horren ostean, erabaki proposamena aurkeztuko da, eta interesdunari jakinaraziko zaio, azken alegazioak egin ditzan. Koordinazio eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeak izango du eskumena erabakia emateko. Prozedura ebazteko gehieneko epea sei hiletakoa izango da.

Erabakiak xedatuko balu ikasleak betebeharretan huts egin duela, laguntza jasotzeko eskubidea galdu egin duela adieraziko du, eta hala dagokionean, Euskal Herriko Unibertsitateari dagokion zenbatekoa itzuli behar diola, bi hilabetetako epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen duenetik hasita. Epe hori borondatezko epea izango da.

- c) Borondatezko epearen barruan dirua itzuli ezean, horren berri emango zaio Gerentziari, Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeari eta gaian eskumenak dituzten Euskal Herriko Unibertsitateko organoei, dagokien lege eta arauen arabera neurriak har ditzaten.



Aurreko 10. atalean dirua itzultzeko ezarritako beharra osorik edo zatika bete ezean eta egoera honek dirauen bitartean, debekatuta egongo da matrikula, titulu emate, kalifikazio berririk egitea, bai eta espediente akademikoari buruzko informazio oharrak lortzea ere. Era berean, ezin izango dituzte UPV/EHUren gainerako zerbitzuak erabili.

**OHARRA:** - Ikasle batek mugikortasuna UPV/EHUtik kanpoko arrazoiengatik, egiterik ez badu, unibertsitateak ez ditu bere gain hartuko haren gastuak (hegazkin billeteak, ostatu erreserbak eta abar).

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Hala ere, ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal zaio Koordinazio eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeari, hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen arabera (123. art. eta hurrengoak); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratzen denetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen arabera (10.1a eta 46.1 artikulua).